


Gobernu organoen banaketa generoaren eta adin tartearen arabera



Ikus eranskineko 35. taula gobernu organoetan dauden pertsonen genero eta adin tartearen araberako banaketa ezagutzeko.

Lana eta familia bateragarri egitea

Gure Berdintasun Planaren lan arloetako bat lana eta familia bizitza bateragarri egitea da. Aurrekoari dagokionez, 2018an gauzaturiko ekintzak honako ardatz hauetan zentratu dira:

- Senideen ospitaleratze edo ebakuntzagarriko baimen berreskuragarria zabaltzea, ebakuntza horrek gaua ospitalean igaro behar izatea eskatzen ez badu ere.
- Bigarren eta hirugarren mailako senideen heriotzagarriko baimena zabaltzea.
- Garaia baino lehen jaio diren edo erditu ostean ospitalean geratu behar duten seme alabak zaintzeko ordaindutako baimen bat sortzea, Langileen Estatutuan aurreikusitakoa hobetuko duena.




Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteari buruzko adierazleak

401-3


Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteari dagokionez, EROSKik beste baimen batzuk ditu legeek ezartzen dituztenez gain, eta bizitza pertsonala eta profesionala orekatzea ahalbidetzen duten inguruneak eta ordutegiak bultzatzen ditu. Adibidez, 2018an, enplegatutako pertsonen % 13,2 lanaldi murriztuan edo eszedentzian zegoen, legezko zaintzarako edo senideak zaintzeko.

Halaber, EROSKik langileen beste proiektu pertsonal batzuen berezitasunak ere hartzen ditu aintzat, eta hala, aukera ematen die ageriko kausarik gabe lanaldia murrizteko, murrizketa aldia amaitutakoan lanaldi osoa berreskuratzeko eskubideari eutsita, gainera. Bestela, borondatezko aldi baterako eszedentziak ematen ditu, lanpostuak gordeta, GKEekin lankidetzan proiektuak edo garapen pertsonaleko beste plan batzuk gauzatzeko. Esaterako, iazko ekitaldian, 926 pertsonak baliatu zuten lanaldi murrizketa edo borondatezko eszedentzia.

Guraso baimenen banaketa, generoaren arabera


			Total
2018an guraso baimena baliatu duten pertsonak, guztira	484	131	615
2018an guraso baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren pertsonak, guztira	267	98	365
Lanera itzuli direnen tasa (2018an baimena amaitu ostean lanera itzuli ziren pertsonen %)	%77,6	%83,1	%79,0
2017an guraso baimen batetik itzuli eta 12 hilabeteren ondoren EROSKIn jarraitzen duten pertsonak	394	121	515
Atxikipen tasa (12 hilabete geroago EROSKIn jarraitzen duten pertsonen %)	%79,6	%74,2	%78,3

Lanaldi murrizketa duten langileak, generoaren eta kausaren arabera



 Emakumeak  Gizonak

Eszedentzian diren langileak, generoaren eta kausaren arabera



 Emakumeak  Gizonak